



Philippe HUGUEN | AFP



IKUSMIRA

MOSULEKO PAISAIA, BRITAINIA HANDIAREN ATARIAN

Europako puntu negargarrienetako bat hustu egin dute, baina «garbitasun» horren aldekoek aurki ikusiko dute britainiar lurretara pasa nahi duten eritrear, afganiar, sudandar, irakiar... asko eta asko itzuli egingo direla, beraien itxaropen bakarra itsasoaren beste aldean duten senideekin elkartzea baita, behingoz gerra eta

miseria atzean uzteko. Makina bat sute eragin zituzten Calaisko kanpalekuan bertan bizitzea beste erremediorik ikusi ez zuten errefuxiatuek, frantses Estatuko agintariek esan zuten bezala. Beraiek Britainia Handira pasa nahi zuten eta Calais zen horretarako punturik egokiena, baina bide guztiak itxi egin dizkiete. Norbaitek kanpalekuari su ematea ideia ona zela pentsatu eta horrela egingo zuen, agian prefetak berak aipatu zuen «tradizioarengatik». Oso sute arriskutsua zen, kanpalekuan butano-botila asko baitzeuden. Irudiak azaltzen digu emaitza, Mosul hiria jihadistek kendu nahi dieten kurduek ikusten dutenaren tankerakoa. joseangel.oria@gaur8.info